

nIRE INFORMAZIOA DENBORAN ZEHAR

2

**IKASKUNTZA-EGOERA
IRAKASLEAREN LIBURUA**

Lehen Hezkuntza



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

KREDITUAK:

©Iruñeko Udala

TESTUAK:

Ana Mendióroz Lacambra

Teresa Benito Aguado

Carlos Ciriza Mendivil

ITZULPENA:

Maramara

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA:

Iruñeko Udal Artxiboa

ARGAZKIAK:

Iruñeko Udal Artxiboa

DISEINUA:

La Llorona

INPRIMATZEA:

Gráficas Biak

LG NA 1522-2025

NIRE INFORMAZIOA DENBORAN ZEHAR




IKASKUNTZA-EGOERA IRAKASLEAREN LIBURUA

Lehen Hezkuntza







AURKIBIDEA

7

**SARRERA
DIDAKTIKO-
PEDAGOGIKOA**

8

SARRERA HISTORIKOA

11

**NIRE INFORMAZIOA
DENBORAN ZEHAR**

14 HASIERAKO JARDUERA

17 ARTXIBOAN
EGITEKO JARDUERA

19 HIRIAN EGITEKO JARDUERA

21 AMAIERAKO JARDUERA

23

ERANSKINAK

24 1. ERANSKINA: "Uste nuen...
baina orain uste dut" lan-fitxa

26 2. ERANSKINA: Taldearen
jarduera ebaluatze
erkatze-zerrenda

27 3. ERANSKINA: Udal
Artxiboko lan-materialak

35 4. ERANSKINA:
"XV. mendean orientatzen"

41 5. ERANSKINA: Landa-irteera
ebaluatzeko behaketa-errubrika

42 6. ERANSKINA:
Ikus-entzunezkoa ebaluatze
errubrika





SARRERA DIDAKTIKO-PEDAGOGIKOA

Oraina iraganetik ulertzeko eta etorkizunera proiektatzeko gertaera historikoak ezagutzeak zer urrats egin behar den jakitea eskatzen du, baita ezagutza hori errazten duten prozedurak zeintzuk diren jakitea ere. Historikoki pentsatzeak edo pentsamendu historikoa garatzeak, beraz, Historia ezagutzea eta Historiari buruzko ezagutzak izatea eskatzen du.

XX. mendeko 80ko hamarkadaz geroztik, Erresuma Batuan historiaren didaktikaren arloan egindako ikerketa puntakoenen arabera, beharrezkoa da prozedurazko kontzeptuak lantzea, ezinbestekoak baitira pentsamendu historikoa garatzeko. Lana ildo horretan kokatzen da. Ildo horrek garapen handia izan du 90eko hamarkadatik aurrera Kanadan eta AEBn, besteak beste Seixas, Morton, Wineburg edo VanSledrighte filosofoekin, eta gaur egun Australiara, Brasilera eta Europara zabaldu da.

Seixas eta Morton (2013) filosofoei jarraituz, historialariek pentsamendu historikoa erabiltzen dute iturriak modu kritikoan eta sortzailean interpretatzeko eta narrazioak sortzeko. Lehen mailako edukiak landu behar dira galdera hauei erantzuteko: zer gertatu den, gertakaria nork egin duen eta non eta noiz gertatu den. Bigarren mailako edukiak ere landu behar dira, ikerketa historikoa egiteko behar diren trebetasunekin lotutako alderdi metodologikoei buruzkoak baitira.

Seixas eta Morton filosofoek **pentsamendu historikoaren sei kontzeptuak**, Historia irakasteko kontuan hartu behar direnak, jaso zituzten *The big six historical thinking concepts* (2013) liburuan. Hauexek dira kontzeptu horiek:

- 1- Garrantzi historikoa: gertakari batek duen garrantzia balioestea.
- 2- Iturria proba bihurtzea inferentzien bidez.
- 3- Aldaketa eta jarraitutasuna azaltzea.
- 4- Gertakarien kausa eta ondorioa ulertzea.
- 5- Ikuspegi historikoa garatzea, testuinguru ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala kontuan hartuta.
- 6- Alderdi etikoa edo balio-iritzia agertzea

Metakontzeptu horiek garatzeak gure gizartean ezinbestekoa den **pentsamendu kritikoa** garatzen laguntzen du, baita beharrezkoa den enpatia garatzen ere, ez bakarrik iragana ulertzeko eta **ikuspegi historikoa** hartzeko presentismoa saihestuz, baita, errespetuzko **balioak** eta balio solidarioak eta demokratikoak garatzeko ere.

ERREFERENTZIAK

Seixas, P.; Morton, T. (2013), *The Big Six Historical Thinking Concepts*, Toronto: Nelson Education.

VanSledright, B. (2010), *The Challenge of Rethinking History Education: On Practices, Theories, and Policy*, New York: Routledge.

Wineburg, S. (2001), *Historical Thinking and other Unnatural Acts. Charting the Future of Teaching the Past*, Filadelfia: Temple University Press.

SARRERA HISTORIKOA

Batasunaren Pribilegioa gaur egun ezagutzen dugun Iruñearen sorrera-gutuna da. Dokumentuak, Karlos III.a erregeak 1423an emandakoak, ordura arte zeuden hiru jurisdikzioak, hau da, ordura arte beren erakundeak eta gobernuak izan zituzten hiru “burguak”, (Nabarrerria, San Zernin eta San Nikolas) bateratzen ditu. Hiru jurisdikzio, hiru komunitate politiko eta sozial izateak liskar eta borroka ugari eragin zituen, eta horien gertaerarik nabarmenena 1276ko Nabarrerriako Gerra izan zen.

XI. mendearen hasieran, jende gutxi xamar bizi zen Iruñean. Biztanle gehienak nekazariak eta apezpikuaren eta kabildoaren zerbitzariak ziren, katedralaren inguruan bizi ziren eta **“Nabarrerria”** deitzen zaiona eratu zuten. 1092an, Antso V.a Ramiritz erregeak Iruñeko hiriaren eta haren barruti guztien jabetza berretsi zion apezpikuari. Beste alde batetik, Donejakue Bidea biztanleriari indarra emateko ardatza izan zen; izan ere, apezpikuak babestutako eta erregeak lagundutako biztanle-talde berri bat kokatu zen hirian. Biztanle-talde hori amildegiak, gaur egun Santo Domingo Aldapa deitzen zaionak, bereizten zuen Nabarreriatik, eta, denborarekin, **San Zernin burgu** bihurtu zen. Alfontso Borrokalaria erregeak Jakako Forua eman zion 1129an.

XII. mendearen erdialdean, beste biztanlegune bat sortu zen katedralaren taulako artxidiakonoaren lursailetan. Biztanlegune hori mirabeak ez ziren nafarrek eta frankoek osatu zuten, **San Nikolas hiria** izena hartuta. San Nikolas burguren forua San Zernin foruaren oso antzekoa zen, baina errolda bat ordaindu behar zioten artxidiakonoari (Martinena, 1996).

Pribilegiorik eta frankiziarik ez zuenez, Nabarrerriak gero eta biztanle gutxiago zituen. Hori saihesteko, Antso VI.a erregeak Jakako forua eman zion 1189an. Beraz, hiru burguek eskubide bera zuten, baina frankizia eta gobernu desberdinak. Iruña **harresiz inguratuta** zegoen barnealdetik eta **sozialki zatituta**.



Burguen artean etengabe izaten ziren liskarrak, batzuetan erregearen ekintzek eta apezpikuak liskar horiek konpondu ahal izateko zituen zailtasunek eraginda. Egoera hori **Nabarrerriako Gerran** jo zuen goia 1276an, burgua erabat suntsitu eta despopolatu baitzen. Horren ondorioz, 1319an, erregeak lortu zuen apezpikuak uko egitea Iruñeko jaurerriari.

1387an, Karlos III.a tronura iritsi zenean, politika bateratzailea hasi zen. Hiru urte geroago Iruñeko katedrala eraiki zuten. Eraikin horretan errege-zeremoniak egingo ziren; beraz, horrek erakusten du Iruña errege-egoitza izateaz gain apezpiku-egoitza ere bazela (Ramírez-Vaquero, 2018). Burguetako

zinpekoen eta alkateen arteko liskarren ondorioz, Vianako Printzearen aurkezpena egin zenean Iruñeko katedralean jazotako gertakariak banatutako hiria baketzeko beharra zegoela ikusi zen. 1423an, erregeak **Batasunaren Pribilegioa** eman zuen, burguetako biztanleen arteko desadostasunak konpontzeko asmoz, komunitate sozial eta politikoa bakar bat bultzatuz.

Batasunaren Pribilegioak Iruñeko hiria bateratzeko eta antolatzeko xedapenak ezarri zituen. Xedapen horiek lehendik zeuden jurisdikzioen **batasuna**, jurisdikzioetako biztanleen arteko legezko berdintasuna, gatazkak konpontzen laguntzeko gobernu bakar bat ezartzea eta hiriaren sendotze sozial eta politikoa lortzea dituzte ardatz.

Nabarreria, San Zernin eta San Nikolas jurisdikzioak erakunde politiko eta administratibo bakar batean bateratzea urrats erabakigarria zen Iruña bateratzeko eta antolatzeko. Ordutik, hiru burguek komunitate bakarra osatzen zuten, eskubide eta askatasun berberekin. Iruña osorako gobernu bateratu bat sortzeak burgu bakoitzetik bereizitako tokiko administrazioak ordezkatzeko zituen, eta horrek kudeaketa errazteaz gain, erabakiak hartzerakoan eraginkortasun handiagoa izatea sustatzen zuen (Pavón et al, 2023). Azkenik, sendotze sozial eta politikoaren bidez, Iruñearen nortasuna eta kohesioa **komunitate batu** gisa indartzea lortu nahi zen, barne-banaketak gaituz eta hiri osoaren garapena eta egonkortasuna sustatuz, bertako biztanle guztiak bakean eta adiskidetasunean bizi zitezen.



ERREFERENTZIAK

Martinena Ruiz, J.J. (1996), "Reseña de la evolución urbana de Pamplona. Desde el siglo XI hasta el derribo de las murallas en 1915", *Príncipe de Viana*, 146-176 or.

Ramírez-Vaquero, E.(2018), "La ciudad y el rey: renovación de la red urbana de navarra al final de la Edad Media", *Anuario de Estudios Medievales*, 49-80 or.

Pavón Benito, J., Hueso Pérez, A., Corpas Mauleón, J.R. (2023), *1423. El Privilegio de la Unión: un año, una ciudad, un reino*, Pamplona.

IKASKUNTZA-EGOERA



NIRE INFORMAZIOA DENBORAN ZEHAR

Testuinguruan kokatzea:

Ikaskuntza-egoera honetan lantzen da garrantzitsua dela dokumentuak modu seguruan zaintzea, gure eskubideak denboran zehar bermatu ahal izateko. Esparru horretan, gainera, ikasleek beren informazioa, fisikoa zein birtuala, modu seguru eta arduratsuan kudeatzeak duen garrantziaz jabetzea lortu nahi da. Batasunaren Pribilegioan jasotzen da hiriaren artxibo bat sortu behar dela hiria gobernatzeko ezinbestekoa den informazio guztia gordetzeko, eta, gainera, informazioa eskuratzeko sistema arautzen du, aldatu, faltsutu edo lapurtzeko aukerarik ez izateko. Dokumentu-zaintza hori hiru burguen bakea eta adiskidetasuna ekarriko zuen printzipioetako bat da, hiru burguak erakunde politiko berri batean. Bakearen eta adiskidetasunaren bermatzaile gisa artxibo bateratu bat sortzeak duen garrantzia ulertzeko, oinarritzko kontzeptuak landuko dira ikasleekin (dokumentua, artxiboa, zaintza seguru).

Ikasleek oinarritzko kontzeptuekin egingen dute lan (agiriak, artxiboa, zainketa, etab.) **agiriak kudeatzearen garrantzia** ulertzeko, beren gertuko ingurunetik abiatuta, eskolatik.

Dokumentu-formatuek izan duten bilakaera ere landuko da, euskarrietan izandako aldaketak aztertuz, ikasleek uler dezaten garrantzitsua dela dokumentuak paperean ez ezik, formatu digitalean ere gordetzea.

Bukatzeko, ikasleek idazlan bat, ikus-entzunezko bat edo antzerki bat egingo dute ikasi dutena erakusteko.

Zer funtsezko gaitasun lortzen laguntzen den:

- Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.
- Matematikarako gaitasuna eta zientzia, teknologia eta ingeniariartzarako gaitasunak.
- Gaitasun digitala.
- Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- Herritar-gaitasuna.
- Ekintzailetza-gaitasuna.
- Kultur kontzientzia eta adierazpenerako gaitasuna.

Pentsamendu historikoko elementuak:

- Garrantzi historikoa
- Iturria proba gisa
- Aldaketa eta jarraitutasuna
- Ikuspegi historikoa

Etapak: LH
Zikloak: 3
Mailak: 5

Ikaskuntza-egoeraren **saio kopurua:** 5

Oinarrizko jakintzak: A1.1, A1.3, A1.4, B1.1, B1.2, B1.4, B1.5, B1.6, C2.2, C2.3, C2.7, C3.4		
Ebaluazio-irizpideak:	Gaitasun espezifikoak:	Deskriptore Operatiboak:
1.1	CE1	CCL3, STEM4, CD1, CD2, CD3, CD4, CD5, CCEC4
2.1, 2.4, 2.5	CE2	CCL1, CCL2, CCL3, STEM2, STEM4, CD1, CD2, CC4
5.1, 5.3	CE5	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, CD1, CC4, CE1, CCEC1
7.1, 7.2	CE7	CCL3, STEM4, CPSAA4, CC1, CC3, CE2, CCEC1
9.2	CE9	CCL5, CPSAA1, CC1, CC2, CC3, CCEC1
Jarduera bakoitzaren deskribapena: HASIERAKO JARDUERA: “Nork dauka nire informazioa?” Jarduera hau ikastetxean egingo da. Dokumentuen kudeaketak eta zaintzak duen garrantzia azalduko zaie ikasleei, esperientziatik abiatuta, hau da, notak erabiliz. Ikasleengandik hurbilen dagoen artxibo kontzeptua sartuko da. Ikasleen kasuan, kontzeptu hori ikastetxea denez, zentroko idazkaritzara egingo dute bisita eta dokumentu-euskarriek izandako bilakaera landuko dute, baita bilakaera hori egiaztatzeko moduak ere. Udal Artxiboa erakutsiko zaie bertara iristeko errazena den formatuan, hots, udal-argazkitegian kontsulta eginez. Prozesu osoan elkarriketa-ikuspegia (<i>thinking together</i>) erabiliko da. ARTXIBOAN EGITEKO JARDUERA: “Letrak denboran zehar”. Jarduera hau Udal Artxiboan egingo da, ikasleak dokumentuak gordetzen diren lekuetara ohitzeko eta eskubideak bermatzeko leku horiek duten garrantzia ulertzeko. Batasunaren Pribilegioa dokumentua garrantzitsua dela nabarmenduko da, dokumentu horren bidez agindu baitzen artxiboa eraikitzea, eta dokumentazioa eskuratzeko segurtasun-sistema bat ezarri zen. Pribilegioaren dokumentuaren beraren testuarekin ginen da lan, jatorrizko hizkuntzarekin eta idazkerarekin ohitzeko. HIRIAN EGITEKO JARDUERA: “XV. mendean orientatzen”. Udal Artxibotik irtetean, ikasleek Batasunaren Pribilegioaren informazioa erabiliko dute Galleako dorrea, zinpekoen etxea eta burguak kokatzeko. Horrela, ikasleek aldaketa eta jarraitutasuna eta kausa eta ondorioa landuko dituzte, baita dokumentuetan azaltzen denak Historia eraikitzeko duen garrantzia ere. AMAIERAKO JARDUERA: “Kanpaia: elkarrekin egoteko lekua eta denbora”. Ariketa honen xedea da hausnartzea gertakizun historikoak nola aldatzen diren eta nola jarraitzen duten. Azken jarduera gisa, ikasitakoarekin antzerki bat egitea proposatzen da.		

Metodologia:

- Metodoak/ estrategiak: lan kooperatiboa, elkarrikerak-estrategiak
- Taldekatzeak: Talde osoa / 4-5 laguneko taldeak / Bakarka.
- Materialak: lan-fitxak

Ebaluazioa:


- Tresnak: lan-fitxak, landa-irteera ebaluatzen behaketa-errubrika eta Ikus-entzunezkoa ebaluatzen errubrika.
- Ebaluazio-uneak: behaketa bidezko ebaluazioa proiektua egin bitartean eta azken ebaluazio kooperatiboa.

Aniztasunarekiko arreta:

Talde kooperatibo heterogeneoak
Ebaluazio malgua

Jarduerak

1. Hasierako jardura: "Nork dauka nire informazioa?"
2. Artxiboan egiteko jardura: "Letrak denboran zehar"
3. Hirian egiteko jardura: "XV. mendean orientatzen"
4. Amaierako jardura: Kanpaia: "Elkarrekin egoteko lekua eta denbora"





3.1. HASIERAKO JARDUERA

Jarduera kop. **1**

Saio kop.

2

TITULUA

Nork dauka nire informazioa?

HELBURUAK

- Dokumentu bat/iturri bat zer den ulertzea.
- Informazioa gordetzeak duen garrantzia balioestea.
- Ikaslearen dokumentazioa (ikastetxekoa, udalerrikoa) kontserbatzen duten artxiboak ezagutzea.
- Norberaren informazioaren kudeaketa arduratsua egiteari buruz sentsibilizatzea.
- Dokumentuen eta artxiboen formatuan izandako aldaketak identifikatzea: artxibo fisikotik dokumentu elektronikora.

DESKRIBAPENA

Jarduera bi saiotan egingo da:

Lehenengoan ikasleek dokumentuak sortzeari eta zaintzeari buruz aldeztu aurretik dituzten ezagutzak, ikuspegiak eta irudipenak ebaluatuko dira, eta testuinguruan kokatutako arazo bat proposatuko da.

Bigarren saioan, ikastetxeko idazkaritzara egingo dute bisita, ikasleek baliozkotze-elementuak ezagutu ditzaten, hala nola zigilua, sinadura digitala, eta dokumentuak egiaztapen- eta zaintza-prozesuaren bidez artxibatzea.

1. SAIOA

Aurretiko ezagutzak gogora ekartzea:

Irakasleak hiru galdera orokor egingo ditu:

- Zer da dokumentu bat?
- Zertarako balio dute dokumentuek?
- Non gordetzen dira dokumentuak?

Ikasleek Uste nuen..., baina orain uste dut... fitxarekin lan egingen dute, eta lehen pentsamendu-errutina beteko dute. Esan, fitxa proiektua amaitzean osatuko dutela. Erantzunak entzun eta balioestean gain, azpimarratu bakoitzak **zein lotura dugun agiriekin** eta zein garrantzitsua den horiek gordetzea. **2.**

ERANSKINA: Kontzeptuak azaltzeko proposamena izeneko eranskinean jasotzen diren azalpenak har daitezke eredu gisa.

Arazoa sortzea. Testuinguruan kokatutako galderak:

Dokumentazioak duen garrantzia landu ondoren, dokumentu-kudeaketa eskolan kokatuko da.

Irakasleak hurbileko testuinguruan kokatutako galderak egingo dizkie:

- Non daude nire aurreko ikasurteetako notak?
- Nola jakin dezaket benetako dokumentuak direla?
- Zer gertatuko da haiekin 10 urte barru?
- Eta lurrikara bat edo suteren bat izaten bada, zer gertatuko da nire notekin?

Galderak ozenki egingo dira eta ikasleak motibatuko dira eskola-dokumentazioari buruzko galdera gehiago egin ditzaten.

Bikote bakoitzak galdera horiei erantzungo die Padlet erabiliz. Erantzunak arbel digitalean proiektatuko dira. Tresna hori erabiltzeko aukerarik ez badago, zerrenda bat egin daiteke arbelean edo post-it-etan, eta azken horiek leku partekatu batean itsatsi.

Dokumentu-tipologia: Artxiboak idatzizko dokumentuak bakarrik gordetzen dituzte?

Atal honen helburua da ikasleek ulertzea artxiboak askotariko dokumentuak zaintzen dituztela: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, argazkiak, etab.

Irakasleak **Udal Artxiboko fototekaren webgunea** erakutsiko du. Beren etxetik edo ikastetxetik hurbil dagoen kale baten argazki bat bila dezatela eskatuko zaie ikasleei.

2. SAIOA

Bigarren saioan **dokumentu-formatuen bilakaera** aztertzen da norberaren esperientzian oinarrituta eta ikastetxeko idazkaritzara egindako bisita baten bidez. Iturri materialen bidez ikasleek formatuen garapenaz konturatzen ahal dira, paperean emandako noten txostenetatik hasi eta euskarri elektronikoan ematen direnetara.

Ikasgelara itzultzean, bizitakoaren eta ezagututakoaren inguruan hitz egin ondoren, honako galdera hauek proposatuko zaizkie, Iruñeko Udal Artxibora eginen duten bisita iragarri aurretik:

- Ba al dago Iruñeko irudiak eta dokumentuak gordetzen dituen erakunderik?
- Noiztik existitzen da Artxiboa?
- Zer dokumentu gordetzen dira han?
- Edonor joan al daiteke dokumentuak kontsultatzen eta han gordetzen diren gauzak ikustera?

Adieraziko da hurrengo saioan Udal Artxibora joango direla dokumentu garrantzitsuenak kontsultatzen.





TALDEKATZEA

Talde osoa
Bikoteak

BALIABIDEAK

Eskolako emaitzen buletinak

1. ERANSKINA: "Uste nuen... baina orain uste dut" lan-fitxa

2. ERANSKINA: Kontzeptuak azaltzeko proposamena

METODOLOGIA

Thinking together

EBALUAZIOA

1. ERANSKINA: "Uste nuen... baina orain uste dut" lan-fitxa

Behaketa bidezko ebaluazioa



TITULUA

Letrak denboran zehar

DESKRIBAPENA

Bisita-tailerra Iruñeko Udal Artxiboan egingo da, ikasleak dokumentuak gordetzen diren lekuetara ohitzeko, eskubideak bermatzeko leku horiek duten garrantzia ulertuz.

1. ZATIA. ARTXIBOA EZAGUTZEN:

Artxiboko langileek harrera egingo diete ikasleei:

- Artxibo bat zer den, Udal Artxiboa noiz sortu zen eta zer eginkizun betetzen dituen azalduko dizkiete.
- **Hiru giltzako kutxa** erakutsiko dute.
- Artxiboko langileek **Batasunaren Pribilegioa** aurkeztuko dute. Dokumentu horrek ordura arte hiru burguetan bizi ziren pertsonen bakea eta adiskidetasuna bilatzen zituen, bakeak oparotasun ekonomikoa ekar zezan. Etorkizunean bakean bizitzeko oinarria burguen artean ordura arte zeuden desberdintasunak eta tirabirak desagertzea zenez, denboran zehar hori bermatzen lagundu beharko luketen alderdirik garrantzitsuenak ere arautu ziren Pribilegioan.
- Pribilegioak alderdi garrantzitsuenak arautzen ditu, bakea eta adostasuna bermatzeko denboran aurrera. Besteak beste Udaletxe berri bat edo 'zinpekoen etxea' eraikitzea agindu eta hirirako armarri berri bat diseinatzen da.
- Udaletxeko ezkaratzean Batasunaren Pribilegioaren **faksimile** bat dagela azalduko dute.
- Batasunaren Pribilegioaren 1533. eta 1619. urteetako **kopiak** erakutsiko dituzte, eta dokumentu-euskarriak izandako bilakaeraren arrazoia azalduko dute: pergamina, papera, liburua.
- Batasunaren Pribilegioaren bidez artxiboa eraikitzea agindu zela azalduko da, eta dokumentazioa eskuratzeko segurtasun-sistema bat ezarri zen dokumentazioa ez faltsutzeko eta ez lapurtzeko.

2. ZATIA. DOKUMENTU IKERKETA:

Ikasleei binaka emanen zaie Batasunaren Pribilegioaren zatia irakurtzeko, eta galdetuko zaie ea hitzen bat ezagutzen duten. Ondoren, Pribilegioaren 3. kapitulua irakurriko dute, zinpekoen etxeaz eta batzarrak deitzeko erabili behar zuten moduaz hitz egiten duena. Galderak erantzunen dituzte.

Etixerako lan gisa, ikasleek pentsamendu-errutinaren bigarren zatia "Uste nuen... baina orain uste dut" beteko dute.

TALDEKATZEA

Bikoteka lanean

BALIABIDEAK

3. ERANSKINA: Udal Artxiboko lan-materialak

METODOLOGIA

Lan kooperatiboa

EBALUAZIOA

Lan-fitxaren zuzenketa

Behaketa bidezko ebaluazioa





TITULUA

XV. mendean orientatzen

HELBURUAK

- Batasunaren Pribilegioan aipatzen diren lekuak identifikatzea eta egungo planoan kokatzeko gai izatea.
- Udaletxea burguen artean kokatzea.
- Aldaketa eta jarraitutasuna eta kausa eta ondorioa ez ezik, dokumentuetan azaltzen denak Historia eraikitzeke duen garrantzia ere ezagutzea.

DESKRIBAPENA

Jarduera hau Udal Artxibotik ateratzean egingo da. **Orientazio-joko** bat da eta Erdi Aroko Iruñeko mapa bat erabiliz egingo da. Ikasleek XV. mendean orientatzen fitxa landuko dute. Fitxan Iruñeko erdigunean ibilaldi bat egitea proposatzen da, XV. mendeko Iruñeko eraikin eta toki esanguratsuenak ezagutu eta aurkitu ditzaten.

Ibilbidea:

1. Udal artxibotik San Zernin elizara

San Zerningo eskaileraren parean San Domingo aldapa ikusten da eta planoan kokatu behar da.

Portalapeko belena bisitatu, San Zernin burguko Erdi Aroko harresiaren hondakinak erakusteko.

San Zernin eliza bisitatu eta planoan kokatu.

2. San Zernin elizatik Udaletxe plazaraino

Udaletxeko fatxadari so egon. Lurrean burguen kokapena agertzen den plaka bilatu eta egin planoaren kopia bat lan-kaieran.

3. Udaletxe plazatik katedralera

Mercaderes kaletik abiatu, Kuriarantz. Handik Katedralako fatxadari so egon, Nabarrera hiriko toki garaian dagoela konturatzeko. Ikasleek Andre Mariaren Katedralaren kokapena markatuko dute.

Talde osoak, San Jose plazan elkartuta, planoetan egindako eta jasotako oharren ondorioak bateratuko ditu.

TALDEKATZEA

Lau laguneko taldeak

BALIABIDEAK

4. ERANSKINA: "XV. mendean orientatzen" lan-fitxa

METODOLOGIA


Lan kooperatiboa

EBALUAZIOA

5. ERANSKINA: Landa-irteera ebaluatzeko behaketa-errubrika.
Planoak zehazteko ebaluazioa.

BIBLIOGRAFIA

Pavón Benito, J., Hueso Pérez, A., Corpas Mauleón, J.R. (2023), 1423. *El Privilegio de la Unión: Un año, una ciudad, un reino*, Pamplona.





3.4 AMAIERAKO JARDUERA

Jarduera kop.

4

Saio kop.

1

TITULUA

Kanpaia: elkarrekin egoteko lekua eta denbora

HELBURUAK

- Balioestea garrantzitsua dela akordioak lortzea komunitatearen bizitza arautzeko, bai bizitza udalerrikoa, bai ikasgelako komunitatearen bizitza.
- Ordezkatuko gaituzten pertsonak, bilerak egiteko lekua, arauak eta harremanetan jartzeko ordua eta modua aukeratzeko metodoak aztertzea.

DESKRIBAPENA

Ikasleekin elkarriketan aritu, agiriak iraganeko adostasun eta gertakizunen lekuko direla hausnartzeko. Batasunaren Pribilegioaren garaitik, **zerk irauten du eta zer aldatu da** geroztik?

- Udaletxearen (zinpekoen etxearen) kokalekua berdina izatea.
- Hiri bateratua izaten jarraitzea.
- Harresien erabilera aldatzea.
- Bilerak deitzeko moduak aldatzea; lehen kanpai bat erabiltzen zen; orain nola egiten ote da?
- Udala osatzeko modua aldatzea: orain ez da auzoka egiten, **hauteskunde demokratikoen bidez** baizik. Orain ez dira zinpekoak, zinegotziak baizik.

Jarduera amaitzeko, **dramatizazio** bat egiteko eskatuko zaie ikasleei.

Dramatizazio hori bideo moduan aurkeztu ahal izango da, bost minutuko iraupena izango du, eta honako hauek jasoko ditu:

- Burguen arteko borroken egoera Iruñean, 1423aren aurretik.
- Batasunaren Pribilegioa idaztea eta sinatzea.
- Kanpaia jotzea Udaletxean bilera egiteko.
- Zinpekoen eta alkatearen bilera Batasunaren Pribilegioaren ondoren.

TALDEKATZEA

Talde osoa

Lau laguneko taldeak

METODOLOGIA

Thinking together

Dramatizazioa

EBALUAZIOA

7. ERANSKINA: Ikus-entzunezkoa ebaluatzeko errubrika.





Pentsamendu-errutinaren fitxa

- Lehenengo saioan lehen zatia beteko da.
- Azken saioan, errutinaren bigarren zatia erabiliko da ikasleek eskuratutako ezagutzak ebaluatzeko.

Zer da dokumentu bat?

Zertarako balio dute dokumentuek?

Non gordetzen dira dokumentuak?

USTE NUEN....



BAINA ORAIN
USTE DUT...



Zer da dokumentu bat?

Zertarako balio dute dokumentuek?

Non gordetzen dira dokumentuak?



ZER DA DOKUMENTU BAT?:

Dokumentu bat giza jardueraren lekukotza oro da. Idatziak, ahozkoak, ikusizkoak... publikoak edo pribatuak izan daitezke.

Bizitza osoan zehar, dokumentazioa sortuko dugu. Dokumentazio horren zati bat baztertu egingo dugu, baina beste zati bat gorde egingo dugu, garrantzitsua dela uste dugulako.

Adibide bat erabil dezakegu: demagun bidaltzen dizkiguten mezu guztiak, erosketa-tiketak, ikastetxeko proiektuak, marrazki eta idazlan guztiak eta abar gordetzea bururatzen zaigula, eta handitzen garenean ospetsu bihurtzen garela. Bada, horiek guztiak erabili ahalko dira etorkizunean gure bizitza nola izan den ezagutzeko.

Dokumentu garrantzitsu batzuk (adibidez, gure jaiotza-ziurtagiria, errolda-ziurtagiria eta gure notak) eskubideak sortzen dituztelako hain garrantzitsuak direnez, erakunde publikoek zaintzen dituzte, hala nola udalak, Estatuko erregistro zibilak edo Hezkuntza Sailak, erakunde horiek gure eskubideak zaintzen baitituzte.

ZER DA ARTXIBO BAT?

Erakunde batek sortu edo jaso dituen dokumentuak dira. Agiriak gordetzen diren eraikinari ere horrela deitzen zaio.

Artxibategien ardura da agiriak gordetzea, ez direla hondatuko ez suntsituko bermatzeko. Artxibategien ardura da halaber agiriak antolatzea, ordenatuta egon daitezen kontsultatu ahal izateko.

1. ATALA: ARTXIBOA EZAGUTZEN



1

HIRU GILTZAKO KUTXA ETA UDAL ARTXIBOA

Karlos III.a erregeak emandako dokumentuak, hau da, **Batasunaren Pribilegioak** hiru burguak edo biztanleguneak (San Zernin, San Nikolas eta Nabarrerria), ordura arte beren legeak eta agintariak zituztenak eta etengabe elkarren aurka zeudenak, bateratu zituen. Horren ondorioz, "jurisdikzio" edo hiri bakar bat, Iruñeko gure hiria, sortu zen.

Dokumentu hori, hain garrantzitsua zenez, **hiru giltzaz itxitako kutxa** batean gorde behar zen (giltza bat burgu bakoitzeko), inoiz ez aldatzeko edo iruzurrez ez aldarazteko. Hori da gaur bisitatzen ari garen **UDAL ARTXIBOAREN** jatorria.

Dokumentua artxiboan gorde izanari esker, gaur, 600 urte geroago, berriro kontsulta dezakegu. Horregatik da hain garrantzitsua artxiboen zeregina. Dokumentuak zaintzen dituzte eta gure eskubideak babesten dituzte.



DOKUMENTUA: BATASUNAREN PRIBILEGIOA. Dokumentu- euskarrien bilakaera



Batasunaren Pribilegioaren jatorrizko dokumentua eskuz idatzita dago bi metro baino gehiago neurtzen duen PERGAMINO batean, **“gotiko etzana”** izeneko “kaligrafia” erabiliz eta hizkuntza gisa, berriz, **“nafar erdara”** erabiliz.

A Zer da pergaminoa? eta nola idazten zen pergaminoetan?

Pergaminoa material malgua eta oso iraunkorra da, eta bertan idatz daiteke. Arkume- edo ahuntz-larruak dira, oso modu berezian prestatzen direnak. **Larruak** garbitu, beratu eta uretan eta karetan sartuta bigundu behar ziren. Gero, ondu eta karrakatu egiten ziren ilea kentzeko, eta egurrezko egituretan tenkatzen ziren, kareharrizko hautsezko geruza bat ematen zitzaaien eta geruza horri esker, tinta gehiegi xurgatzea eragozten zen. Amaitzeko, apar-harriarekin leuntzen ziren eta nahi zen neurrian mozten ziren.

Haien malgutasuna eta iraunkortasuna zirela eta, dokumentu asko egin zitezkeen. Dokumentuak **biribilkatuta edo liburuak** osatuz gorde zitezkeen, formatu erosoagoak baitziren.

Dokumentu horiek banan-banan idatzi behar ziren, idazluma izeneko tresnak erabiliz. Benetako **artisautza** zen, horretarako, kaligrafia menderatu behar zen eta dokumentu bakoitza sortzeko denbora asko behar zen, dokumentu bakoitza artisau-lan BAKARRA baitzen.

Kalamuak





B Gotiko etzana

1423ko Batasunaren Pribilegioa jasotzen duen dokumentua “gotiko etzana” izeneko letra mota erabiliz idatzi zen.



Jatorria: Mediavilla, C. (2005), *Caligrafía. Del signo caligráfico a la pintura abstracta*, Valencia.

ERREPASOA

Dokumentu garrantzitsu hau erregeak eman zuen



urtean, eta

batean idatzi zuten; horretarako, hizkuntza erabili zuten, erregearen administrazioak garai hartan erabiltzen zuen hizkuntza jasoar baita.

C Eta nola dakigu jatorrizko dokumentu bat dela?

Dokumentuaren egiazkotasuna egiaztatzeko, sinadurez gain zigiluak erabiltzen dira: Zigiluak, argizariz eginak, dokumentutik zintzilik daude eta zetazko xingola berdez lotzen zaizkio dokumentuari.

Karlos. III.a erregearen zigilua



Iruñeko hiriaren zigilu berria




D Ezinbesteko dokumentu batek formatu erosoago bat behar du: **Kopiak. Dokumentu-formatuen bilakaera**

Batasunaren Pribilegioa oso dokumentu garrantzitsua zen, dokumentu hartan Iruñeko bizitzaren alderdi guztiak arautzen baitziren eta, beraz, sarri samar erabili behar zen. Horregatik, zigilu astun zintzilikariak dituen pergamino biribilkatu baten formatua erabiltzeko **erosoa** dela iruditzen al zaizue?

Denborarekin, eta errazago eta jatorrizkoa hondatzeko arriskurik gabe erabili ahal izateko, jatorrizko dokumentuaren **kopiak** egin ziren denborarekin bilakaera izan zuten formatuetan. Lehenengo kopia pergaminoan egin zen 1533an eta liburu-itxura eman zitzaion.

Irudi hau ikus dezakegu:





Papera eta inprenta agertzea

XVI. mendean zehar paperaren erabilpena orokortu zen. Papera landare-zuntzez egiten zenez, material **ugariagoa** zen, ekoizteko erraza eta **merkea**, eta gero eta liburu-eskari handiagoari erantzuteko aukera ematen zuen.

Liburuak eskuz idazteko ondo prestatuta zeuden eta idazteko artea ezagutzen zuten eskulangileak behar ziren. Lehengaien arazoa papera erabiltzen hasi zirenean konpondu zen eta XV. mendean inprenta agertu zenean eta orokorrean erabiltzen hasi zirenean, liburuak **azkar** eta askoz merkeago ekoitzi ahal izan zituzten.



IKASITAKOA ERREPASATUKO DUGU:

Batasunaren Pribilegioaren jatorrizko dokumentua eta dokumentu horren kopiak idazteko erabili den materiala, modua eta tresna idatziko ditugu taulan. Testuan gauza berbera esaten da, baina itxura desberdinak hartu ditu erosoagoa eta maneigarriagoa izateko.



	MATERIALA	ITXURA	ZER TRESNA ERABILTZEN DA IDAZTEKO?
1423			
1533			
1619			

Orain Batasunaren Pribilegioaren testua erabiliz ikertuko dugu.

2. ATALA ARTXIBOAN IKERTZEN


1

**ZINPEKOEN
ETXEA EDO
UDALETXEA**



Batasunaren Pribilegioan, erregeak eraikin berri bat, udaletxea edo zinpeko etxea, eraikitzeko agindu zuen. Etxe horretan, “hiri berriaren”, hots, **Iruñearen** ordezkari politiko berriak bilduko ziren. Eraikin berriak hiriaren batasuna sinbolikoki irudikatzen zuen. Eraikin horretan hiriaren edo **“zinpeko etxearen”** agintariak bilduko dira.

Hauxe da erregeak “zinpekoen etxea” eraikitzeko agintzen duen dokumentuaren zatia:




1. Irudia: Batasunaren Pribilegioaren zatia. Iturria: Iruñeko Udal Artxiboa



Batasunaren Pribilegioko hitz batzuk irakurriko ditugu. Horretarako, alfabeto **gotiko etzana** erabiliko dugu:



ITURRIA: Mediavilla, C. (2005), *Caligrafía. Del signo caligráfico a la pintura abstracta*, Valencia.



Bilatu hurrengo hitzak: "Pamplona",
"Jurería", "Fossado", "Gallea"



	AURKITU AL DUT?	1423AN IDAZTEN ZEN BEZALA IDAZTEN SAIATUKO NAIZ
Pamplona (Iruña)		
Jurería (zinpekoen etxea)		
Fossado		
Gallea		

Gogoratu:

A

S

P

SS

F

E

XV. mendeko pertsonen pergaminoa, idazlumak eta kaligrafia desberdina erabiltzen zituzten. Baina horretaz gain, orduko hitzak eta gaurkoak desberdinak ziren, Batasunaren Pribilegioa idazteko **nafar erdara** erabili baitzuten. Horregatik, testua ulertzea zaila gerta dakiguke.

Testua hobeto ulertzeko, Juan Karlos Lopez-Mugartzak 2023an euskarara egindako itzulpen egokitua erabiliko dugu: *El Privilegio de la Unión de Pamplona, 600 años (1423-2023) / Iruñeko Batasunaren Pribilegioa, 600 urte (1423-2023)*, Iruña, NUP.



3.

Zinpekoen etxea edo udaletxea non eraikiko den eta zinpekoen kanpaia non kokatuko den.

OROBAT, aipatu prokuradore guztien emate eta onespenarekin, agindu eta manatu dugu, eta dokumentu honen bidez agintzen eta manatzen dugu, ezen aipatu Iruñeko hiri oso noble eta, erran bezala, batu honetako aipatu, unibertsitateko zinpekoek etxe bat, erran nahi baita, zinpekoen etxe edo udaletxe bat bakarra izan behar dutela betiko, non gure hiri noble honetako arazoak era negozioak ebazteko batzartuko diren. Eta ahalik era lasterren eraiki behar dute udaletxea, Gallea izeneko dorrearen aitzineko lubakian, Nabarreriarren alderantz, eta aipatu dorrearen eta aipatu udaletxearen artean bide nahikoa utzi behar dute gaur egun ohikoa den tokitik edo hobekien irudituko zaien bertze nonbaitetik igarotzeko. Eta etxe horretan elkartuko dira aipatu hamar zinpekoak, eta beherago aipatzen den (...) gure hiri oso nobleko alkateak hantxe izanen du bere audientzia. Eta Galleako dorrean edo hobekien iritziko duten lekuan kanpai bat jarriko dute, eta ezkila horren joaldiarekin batera aipatu gure hiri oso nobleko aipatu zinpekoak (...) elkartuko dira beharrezkoa izanen den bakoitzean. Eta aipatu udaletxea, erran nahi baita, zinpekoen etxea eraiki arte, aipatu zinpekoak San Zernin elizako ospitalean bildu ahal izanen dira, edo, nahiago izanez gero aipatu Burguko eta Herriko zinpekoen etxean.

1 Erregeak zer argibide eman zituen dokumentuan zinpekoen etxea edo udaletxea eraikitzeko?

2 Zure ustez, zergatik aukeratu zuen leku hori?

XV. MENDEAN ORIENTATZEN

UDALETXEA, NON ERAIKIKO DUGU?

“Inorena ez den” lurrian, **DENON** lursaila izan dadin.

Udal Artxibora egindako bisitan jatorrizko dokumentuan irakurri dugunez, erregeak esan zuen udaletxea **San Zernin burguren eta Nabarreriarren artean dagoen amildegian** eraiki behar zela.

Leku hori ez zen burguen jabetzakoa; beraz, “inorena ez den lurra” zen, hiru burguen arteko muga egiten zuena.

Lur hartan udaletxea eraikitzea **batasunaren** eta erakunde politiko berri baten sorreraren, hots, Iruñeko hiriaren sorreraren **ikur** izango zen.



Egungo udaletxea erregeak agindu zuen tokian eraiki zen, eta, beraz, handik oso hurbil **San Zernin burgua defendatzen zuen antzinako harresiaren** zati batzuk aurki ditzakegu. Hiria bateratu zenean, harresiak berrerrabili egin zituzten, espazio komun horretan sortu ziren etxebizitzak eraikitzen laguntzeko.

Nola deitzen zaio harresi zaharraren zatia bisita dezakegun lekuari?

.....

.....

.....

.....


.....

.....





Ibilbideari ekingo diogu



1 Artxibotik

- Artxibotik atera ondoren, harresi zaharraren ondoko amildegi zaharretik (San Domingo aldapa) joango gara San Zernin burguraino.
- **San Zernin eliza** ikusiko dugu; gotorlekua ematen du.
- Eskailerrak igotzean, Portalapeko belena bisitatuko dugu, non burguen arteko liskarren aztarnak ikus ditzakegun.
- Leku horri **Portalapea** deitzen zaio, ondoan Galeako atea egon zelako. Dorre hori zinpekoen etxea kokatzeko erreferentziazat hartzen da.

San Zernin elizara



2 Portalapeko belenara bisita:

Ikusi duguna **gogoratuko dugu**

Imajinatu egingo dugu: Bisitatu ondoren, hau imajinatuko dugu:

Nolakoa izango zen bizitza harresiek norberarengandik hain hurbil bizi ziren pertsonengandik defendatzeko balio zutenean? Nolakoa izango zen bizitza, etengabe gerran egonez gero, harresirik balego gaur egun Iruñeko auzoak bereizteko?

Marraztu egingo dugu: Bisita egin bitartean, marraztu harresia. Gatazka-garaian edo bake- eta adiskidetasun-garaian girotzea aukera dezakezu.



3 Portalapeko belenatik

- Portalapetik ateratzean, inorena ez den lurrerantz abiatuko gara, Nabarreriarantz. Han, udaletxeko edo “zinpekoen etxeko” atea ikusiko dugu.

“zinpekoen etxera”

4 Udaletxe plazan

- 100 urrats egingo ditugu aurrera. Inorena ez den leku horren inguruan, hiru burgiak antolatu ziren. Leku hori lehen liskarren helburu zen, geroago, azoka egiteko erabili zen eta “Fruta Plaza” deitzen zitzaion.
- Zapatería kalean sartu aurretik, lurrera begiratuko dugu...., hor hiru burgiak daude marraztuta.

Lurrean

dagoen burguen ingerada marraztuko dugu Iruñeko gaur egungo planoaren gainean. Lurrean marraztuta dagoen burguen planoak kopiatuko dugu. Talde guztien artean, eta irakaslearen laguntzarekin, elementu hauek kokatuko ditugu planoan:

1

Udaletxea

2

San Zernin eliza

3

Andre Mariaren Katedrala

4

Portalapeko belena

5

San Domingoko erreka




EGILEAK: Martinena, Hueso
eta García-Barberena.





Irizpideak	Bikaina (4)	Ona (3)	Onargarria (2)	Ez nahikoa (1)
Parte-hartzea	Proposatutako jarduera guztietan bete-betea parte hartzen du, ideiak botatzen ditu eta galdera garrantzitsuak egiten ditu.	Proposatutako jarduera gehienetan modu iraunkorrean parte hartzen du.	Proposatutako jardueretan noizean behin parte hartzen du.	Proposatutako jardueretan ez du parte hartzen edo ez du interesik erakusten.
Interesa	Interes- eta gogo-maila handia erakusten du landa-irteera osoan.	Egindako jarduera gehienetan interesa erakusten du.	Jarduera batzuetan interesa erakusten du, baina beste batzuetan interesa galtzen du.	Egindako jardueretan interes gutxi edo batere interesik ez duela erakusten du.
Portaera	Portaera eredugarria du une oro, arauak errespetatzen ditu eta ikasteko jarrera positiboa du.	Portaera egokia izaten du ia beti eta ezarritako arauak betetzen ditu.	Batzuetan portaera desegokiak ditu edo ezarritako arauak ez ditu errespetatzen.	Portaera desegokia du etengabe, eta horrek eragina du jardueraren garapenean.
Behaketa	Arretaz behatzen du eta zehatz-mehatz jasotzen ditu bisitatutako ingurune alderdi garrantzitsuak.	Behar bezala behatzen eta jasotzen ditu bisitatutako ingurune alderdi garrantzitsu gehienak.	Gaingiroki behatzen ditu bisitatutako ingurune alderdi batzuk.	Ez du arreta jartzen bisitatutako ingurunearen xehetasunetan, eta ez du informazio garrantzitsurik jasotzen.
Ulermena	Behatutako kontzeptuak eta fenomenoak ondo ulertzen ditu, eta lotura garrantzitsuak egiten ditu ikasgelan ikasitakoarekin.	Behatutako kontzeptu eta fenomeno gehienak ondo ulertzen ditu.	Behatutako kontzeptu eta fenomeno batzuk ulertzen ditu oinarrian.	Behatutako kontzeptuak eta fenomenoak ez ditu ulertzen.





Irizpidea	Bikaina	Ona	Nahikoa	Eskasa
Edukia	Gaia zuzen lantzen da, xehetasunak emanaz. Oinarrizko kontzeptuak (dokumentua, artxiboa, dokumentu-zaintza, dokumentu-formen bilakaera) zuzen eta argi islatzen dira.	Gai nagusia zuzen lantzen da. Oinarrizko kontzeptuak (dokumentua, artxiboa, dokumentu-zaintza, dokumentu-formen bilakaera) agertzen dira.	Gaia gaingiroki lantzen da. Oinarrizko kontzeptu batzuk (dokumentua, artxiboa, dokumentu-zaintza, dokumentu-formen bilakaera) agertzen dira.	Oso eduki eta informazio gutxi ematen dira, eta akats batzuk daude xehetasunetan. Oinarrizko kontzeptuak (dokumentua, artxiboa, dokumentu-zaintza, dokumentu-formen bilakaera) ez dira agertzen.
Originaltasuna	Bideoa/ dramatizazioa aurkezteko modua dibertigarria, interaktiboa, didaktikoa eta berritzailea da.	Bideoa/ dramatizazioa originala eta didaktikoa da.	Bideoaren/ dramatizazioaren aurkezpena oinarrizkoa da.	Bideoak ez du originaltasunik eta gaizki antolatuta dago.
Hizkuntza	Testuinguruari egokitutako hizkuntza erabili zen eta hitz guztiak ulertu ziren.	Hizkuntza ez zen egokia izan eta ahoskera-akatsak egin ziren.	Ahoskera-akats batzuk egin ziren eta erabilitako hizkuntza ez zen teknikoa izan.	Ahoskera-akats gehiegi egin ziren eta hizkera arrunta erabili zen.
Kalitatea	Audioaren eta bideoaren/ eszenografiaren eta ahoskeraren kalitatea bikainak dira.	Bideoaren kalitatea oso ona da, baina audioan akats batzuk daude/ dramatizazioaren kalitatea ona da, baina ahoskeran eta eszenografian akatsak daude.	Audioak edo bideoak huts egin zuten bideoaren zati handi batean/ eszenografiak eta ahoskerak huts egiten du zati gehienguan.	Audioaren eta bideoaren kalitatea eskasa da eta gaia ulertzea zailtzen du. / eszenografiaren eta ahoskeraren kalitatea eskasa da eta ulertzea zailtzen du.

